

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Salburua eta Zabalgana urbanizatzeko programako ekipamendu eta etxebizitzarako planeko lehen xedapen-aldaketaren proiektua onestea, eta hasierako onespena ematea xedapen-aldaketa horri

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 10ean egindako ohiko bilkuran:

1. Vitoria-Gasteizko Salburuko eta Zabalganeko plan partzialaren lehen xedapen-aldaketaren proiektua onestea, zein udal zerbitzu teknikoek 2020ko otsailaren 3an idatzia baita.

2. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Salburuko eta Zabalganeko plan partzialaren lehen xedapen-aldaketari, ITAU, Arquitectura, Ingeniería y Urbanismo, SLP enpresak 2020ko urtarrilean idatzi en eta dosierrean jasota dagoen proiektuaren arabera.

3. Dosiera jendaurrean jartzea, hogeit egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzat dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea —, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 10ean

Alkate-lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE